

JOKIN ETXEBARRIA, HIZLARIA MINILIFE HABITAT KONGRESUAN

Posted on 26/05/2023 by Naider

Category: [Albistea](#)

Tags: [Ciudades competitivas](#), [Competitividad local y territorial](#), [Promoción económica local y territorial](#)

Jokin Etxebarriak, Naiderreko Ekonomia eta Berrikuntza koordinatzaileak, parte hartuko du maiatzaren 31n [miniLife Habitat Kongresuan](#). Kongresu hori hiriek eta tarteko eskalako nukleoek osasun- eta ongizate-ingurune gisa dituzten balioetan sakontzeko topagunea da, bereziki Gaztela eta Leongo agertokian, [AEICE Clúster Hábitat Eficiente](#)-k antolatuta.

Jokinek lurralde-lehiakortasunean eta ekonomia-sustapenean aditu gisa duen ikuspegia emango du, Gaztela eta Leongo testuinguru autonomikoan aplikagarriak diren erreferentziazko hirietako hobekuntza- eta ikaskuntza-beharrizanei buruzko jardunaldian egingo den eztabaidan.

Online jarraituko den jardunaldian [izena ematea](#) doakoa da.

